

GARRAIO SAREAREN ATALEKO BURUA

LANPOSTUAREN ZEHATZAPEN LABURRA

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saileko garraio-sarea kontratatu, instalatu eta mantentzen du. Arloko buruarekin elkarlanean aritzen da plangintza-funtzio guztietan eta arloko buruak garatzen dituen beste funtzio batzuetan, arloko buruari lagunduz eta euskarria emanez. Gainera, bere Atalaren erantzukizunpeko proiektuen buru izango da.

EGINKIZUNEN AZALPEN ZEHATZA

- Bere ataleko dimentsionamenduari eta okupazioari buruz ez ezik, enplegatu bakoitzaren profilari buruz ere informatuta egotea arloko buruari aholku eman ahal izateko arloko buruak baliabideak kudeatzeko.
- Arloko buruari laguntzea berak kudeatzen duen atalari buruzko premiak –prestakuntzari eta kalitatearen kudeaketari buruzkoak– aztertzen eta identifikatzen.
- Arloko buruari laguntzea berak kudeatzen duen atalari buruzko azpiegitura teknologikoaren premiak aztertzen eta identifikatzen.
- Eskaintzak ebaluatzea eta kontratuak adjudikatzeko proposamenak egitea.
- Egin behar diren instalazioak eta mantentze-lanak lehenestea.
- Sistemak instalatzeko eta/edo mantentzeko azpikontratutako enpresen eginkizunak zehaztu eta gainbegiratzea.
- Proiektua garatzeko lantaldeak eta lan-bilerak koordinatu, kudeatu eta dinamizatzea, eginkizunak esleitzuz, konpromisoak ezarriz, lortutako akordioak identifikatuz eta jarritako helburuak betetzeko eta ezarritako plana betetzeko beharrezkoak diren emaitzak lortzeko ahaleginak eginez.
- Proiektuburuaren berezko lanak egitea Urteko Ekintza Planak horrelakorik ezartzen badu.
- Berak parte hartzen duen proiektuak eta jarduerak definitzeko beharrezkoa den dokumentazioa biltzea eta/edo dokumentatzea.